

11. Erreportari Gaztea Sarria

Teknologia berriak gazteon ezinbesteko tresneriak

Zenbaitetan aurrerakuntza itzeltzat jo badaitezke ere, askotan sentitu izan dugu makina sasijakintsu hauek haizea hartzera bidaltzeko gogo. Gure gizartean gero eta garrantzi handiagoa dute, batzuetan ezinbesteko gertatzen direlarik. Jadanik ezinezkoa dirudi gailu hauek gabeko mundu bat imajinatzea...

Belaunaldi gazteenetik hasi eta zaharrentaraino aurki dezakegu hauetako aparailu teknologikoren bat edo beste: ordenagailuak, mugikorrak... gizartearen partaide bihurtu dira kasik.

Erabilerak anitzak izaten dira eta horietatik askok gizartearen zati bat erakarri eta ia-ia menpekotasuna sortzea lortzen dute. Heldugoek beren ideia eta iritziak besteei jakinarazteko parada ere badute. Blogak arrakasta handia lortu dute azkenaldian; izan ere, webgune bategatik ordaintzen dena, ez da blog bat edukitzeagatik egin behar. Honela, aukera ezin hobea da, iritzi-trukaketak burutzeko doako baliabide hau erabiltzea. Gazteen artean, fotologa da horretarako tresna aproposena une honetan.

Baina, erabilera egokia ematen al zaie? Galdera honi erantzuna eman ahal izateko lehenik, tresna bakoitzaren berezko erabilera zein den argitu behar da. Egiazki, zaila gertatzen da horretan denak ados egotea, batez ere gazteen artean. Bakoitzak, gauza arras desberdinetarako erabiltzen baitu aparailu bakoitza.

Izugarria izan da teknologia berrien bilakaera azken urte hauetan. Ez al gara Martitzeko "martzianoak" baino arraroago bihurtzen ari?

Betidanik mugikorrek, deiak egin eta jasotzeko izan dira; ordenagailuak, dokumentuak garbira pasa eta informazioa aurkitzeko; musika-aparailuak musika entzuteko e.a.

Gaur egun ordea, ikusi ahal izan dugun bezala, gauzak oso desberdinak dira. Hain zuzen ere mugikorrek, deiak ez diren beste edo zertarako gehiago erabiltzen dira: argazki eta irudiak trukatzeko, musika entzuteko, multimedia-mezuak bidaltzeko, Interneten nabi-



gatzeko... Ordenagailuak, berriz, lagun eta ezagunekin solasean aritzeko, musika eta filmak jaisteko, iritziak partekatuz... eta lanak egiteko, noizean behin. Musika-aparailuei erreparatuz gero, musika



entzuteko soilik balio zuten walkman eta discmana urruti geratu dira. Gaur egun ohikoagoak dira dimentsio txikiak tresnetan ehunka abesti sartzea; horrez gain, irudi eta dokumentuak gordetzeko eta filmak ikusteko.

Argi geratu da aurreko testigantzetan, gaur egungo teknologia hain txikiak direla medio, leku desberdin ugarietara eraman ohi direla. Gure bakardadeko bidelagun dira; gogoratu nahi ez diren uneetan entretenitzen gaituztenak.

Erakargarriak dira oso eta nehor ere ez da mundu honetan, ezta Andoaingo herrian ere, hauetako-

Gaztekoen iritzia ordenagailu eta bideo-kontsolekiko

ORDENAGAILUA		Duela gutxi gorabehera lau urte ordenagailua dudala, eta Internet ere badut. Musika edo filmik jaitsi izan dut noizbehinka Emuletik. Informazioa aurkitzeko erabiltzen dut eta baita jolasteko ere, eta jolastekotan, gehienetan minijuegos webgunean ibiltzen naiz. Ordenagailua familiako guztien beharrak asetzeko erosi genuen. Bestalde, Interneten ibiltzeko gurasoek ez didate inolako araurik jartzen.
	ITSASO SANTXEZ (LH 5. maila)	
BIDEO-KONTSOLAK		Duela bi urte etxean Internet dudala. Anaia-arrebetatik handiena naiz eta niri jarri zidaten Internet, nire gurasoek ere edukitzeko premia ikusten zutelarik. Jolasteko eta informazioa bilatzeko erabiltzen dut. Lanak ordea, eskuz egiten ditut ordenagailuz egin beharrean, galarazita baitaukagu makinaz idaztea. Helbide elektronikorik oraindik ez dut baina aurrerantzean edukitzea gustatuko litzaidake.
	LEIRE ETXEBERRÍA (LH 5. maila)	
BIDEO-KONTSOLAK		Play Stationa jolasteko erabiltzen dut, baina filmen bat edo beste ere ikusi dut bertan. Nire lehenengo jaunartzean, duela bi urte eskuratu nuen, nik eskatu gabe oparitu zidatelarik. Nahi dudanean ibil naiteke, baina gehienbat asteburuetan erabiltzen dut. Guztia- ren gainetik, ordea, telebista gustuko dudana programa edo marrazki bizidunak balego, zalantzarik gabe Play Stationa itzali eta hauek ikusiko nitzuke.
	ANDER OLASAGASTI (LH 5. maila)	
BIDEO-KONTSOLAK		lazko nire urtebetetzean oparitu zidaten Nintendo DSa nik eskatu nuelako. Nire ahizpa eta lehengusuekin batera jolasten naiz. Ikastolara ez dut ekaritzen, besteak beste debekatuta dagoelako. Etxean ere jolastu izan naiz, etxerako lanak egin eta gero, betiere. Jolasteko erabiltzen dut soilik, beste hainbat funtzio ere badituen arren; besteak beste, nire ingurukoekin sarean jokatu, musika entzun e.a. Gurasoek ez didate jolasteko ordu-kopurua mugatzen.
	LIBE MILENA (LH 5. maila)	

ren bat edukitzea gustatuko ez litzaiokeenik. Horixe da gure gizarte kapitalista eta kontsumista honetan jazotzen dena; kontsumitzeria behartuta gaudela dirudi, inolako premiarik ez dugun arren.

Bestalde, bekaizkeria ere bada-
kar teknologia berrien kontu honek. Betidanik egon ei da, baina gaur egungo umeen artean nabariagoa da: besteek dutena nahi izaten dugu, hobia dela iruditzen zaigu eta.



Ikastolen Elkarteak proiektu aitzindaria sortu du: liburu baten tamaina duen ordenagailu eramangarria izango du ikasle bakoitzak, eta aplikazio informatiko berezi baten bidez nahi horretarako propio sortu diren milaka ariketen bidez ikasle bakoitzaren lan eritimoaren jarraipena egin ahal izango dute irakasleek.

Zer da Ikasys? Tipologia zabaleko jarduerak didaktikoen bidez, ikasleak oinarriko kompetentziak lortzeko behar dituen baliabideak garatzeko hezkuntza ikerketa alorreko sistema berritatzaileria da. Proiektua, norberak ordenagailu bidez ikasteko sistema da eta tresna informatikoak (hardware), aplikazio informatikoak (software) eta curriculum-estrategiak (edukiak) uztartzen dituen multzoa da.

Zein helburu du? Egoera sinpleetatik abiatuz (ikasketa puntualak), ikasgelan eta eguneroko bizitzan sortzen zaizkion egoera-arazoak ulertzeko eta egoera hauei aurre egiteko, ikasleari bere beharrei egokitutako tresna sendoak ematea da proiektuaren helburu nagusia.

IKASYS proiektuaren lehen fasea apirilean jarriko dute martxan hiru ikastolatan, 225 ikaslerekin. Hurrengo ikasturtean bigarren fasea jarriko da abian, sistema beste 16 ikastolara hedatuz, Andoaingo Ikastola tartean. Ikasturte amaieran ebaluazio bati ekingo diogu zer jarraipen izan dezakeen ikusteko.

Gazteen iritzia musika-aparailu eta mugikorrekiko



JOSU IRAOLA (DBH 1. maila)

Orain dela urtebete, hots, 6. mailatik dut mugikorra. Nik eskatu nuen, nire lagun gehienek bai baitzeukaten eta beti besteei eskatzen ibil ez nendin. Egutero erabiltzen dut eta Ikastolara ere ekarri ohi dut, gehienbat deitzeko, baina neuzen bat edo beste noiz edo noiz bidali izan dut. Jokoak, ordea, ez ditut inolaz ere erabiltzen. Pentsa: mugikorretik ezabatu nituen zekarzkiegak. Dudan sakelakoa ona da, baina ez ditu beste munduko gauza gehiegi.

MUGIKORRA

Orain dela bi urte erosi nuen, baina zaharkitua gelditu zenez, beste bat erosi nuen beranduago, eragiketa gehiago egiteko aukera ematen zuena. Gehienbat musika entzun eta mezuak bidaltzeko erabiltzen dut eta ez dut deirik apenas egiten. Sakelakoa eduki nahiaren arrazoia oso sinplea da. Izan ere, noizbait lekuren batera joan eta kausa desberdinengatik berandutzea gerta daiteke. Mugikorra dudanez, gurasoei deitzeko aukera dut, eta aldi berean etxera berandu itzultzeagatik bota diezadaketan errieta saihesten dut. Hileko kuota gurasoek ordaintzen didate eta esan daiteke nahi adina diru xahutu dezakedala, betiere muga baten barruan.



AXEL GARCIA (DBH 2. maila)



EÑAUT VELADO (DBH 1. maila)

Duela bi urte lortu nuen mp3a, jadanik Play Stationean nengibilen bitartean aspertu egiten nintzenez, musika entzutea interesgarria litzatekeela pentsatu bainuen. Eta horretarako zer hobeto mp3an musika entzutea baino? Bideo-kontsolan nabiltzen entzuteaz gain, kaletik noala ere entzuten dut. Bestalde, fitxategi desberdinak gordetzeko ere erabiltzen dut: Ikastolako lanak, argazkiak, e.a. Honez gain, nik ez dut diskete-irakurgailurik, beraz, Mp3a da dokumentuak gordetzeko nire tresna. Azkenik esan, tresna honetan sartzen dudana musika, Internetetik jaitsi edota CDe-tatik aukeratzen dudala.

MUSIKA-APARAILUA (MP3)

Musika entzun eta Ikastolara lanen dokumentuak gordetzeko erabiltzen dut. Fitxategi hauek gordetzeko CDak ere erabili ohi ditut oraindik, baina mp3a baino gutxiagotan, besteak beste erosoagoa baita. Disketea ordea, alboratuta utzi dut jadanik. Azken finean, abantailak baino ez dizkiot ikusten mp3ari. Alde batetik, CD desberdinetako abestiak txerta ditzaket bertan. Bestetik, diskete eta diskoak baino leku gutxiago okupatzen du memoria-gaitasun handiagoa duelarik. Etxetik Ikastolara eta Ikastolatik etxera bidean musika entzuteko erabiltzen dut, baina normalean edozein leku eta momentutan entzuten dut.



JOANES ITURRARTE (DBH 2. maila)

Tere Barandiaranen iritzia



arte, hotelen bat erreserbatu dut soilik, baina aurrerantzean erabilera hori hazi egingo delakoan nago.

Bideo-kontsolarik ez dute oraindik nire semeek, ordenagailua erabiltzen baitute jokatzen. Etxean badago mp3rik, baina oraindik ez dute erabiltzen txikiak baitira.

Tere Barandiarani teknologia berriei buruzko bere iritzia eskatu eta hauxe da esan diguna:

“Aspaldi da ordenagailua etxean dudala eta Internet geroxeago jarri nuen. Azken finean, ordenagailua lanerako tresna da eta lanak eskatzen didan behar bat. Ikastaroak egiten ditugur urtero, bakoitzak ordenagailuaren inguruko nahi duen edozein arlo lantzen duelarik. Bakoitzaren esku dago parte hartu ala ez.

Nire bederatzi, zazpi eta lau urteko semeek ordenagailua erabiltzen dute jadanik. Okerrena zera da: beraiek jolas bat bezala hartzen dutela. Izan ere, jolazteko hainbat programa dituzte bertan instalaturik eta honetarako soilik erabiltzen dute, beraz. Laugarren mailan dabilenak ordea, noiz edo noiz

erabili du informazioa bilatzeko. Edonola ere, erabilera mugatua dute. Ibiltzekotan, ni aurrerantzean nagoenean soilik izango da.

Internet egokia dela iruditzen zait, erabileraren arabera, betiere. Nik erabiltzen dudana abantailak besterik ez dizkiot ikusten. Bestalde, informazioa desegokia iritsi daiteke behar ez duen lekura, eta hau izango litzateke desabantaila. Informazioa zabaltea egokia baiteritort, baina kontu handiarekin ibili behar da okerrik ez gertatzeko.

Interneten barruan, WiFi-a aurrerapen itzela da, edozein lekutan lan egin dezakezu eta zure ordenagailu eramangarriarekin. Internetekin amaitzeko esan, ez dudala sekula ezer ez erosi. Horretarako, herriko ematea gustatzen zait. Orain

Lagunek eta senideek eragin handia dute teknologia berri hauek oparizatzen eskatzerako garaian. Izan ere, lagunek dutena nahi izaten dute askotan umeek, eta familian ere berdina gertatzen da. Adin bereko lehengusuak adibidez mp3a eskatu du aurtengo Gabonetan eta ekarri diote.

Halere, gauza guztiek bere neurria dute, eta ez deritot oso egokia bederatzi urteko haur batzuek mugikorra edukitzea. Behar bada, seme bat baino gehiago dudalako izango dut pentsaera hau; hain zuzen ere, guztiak kontrolatuta ditut.

Ikastolan Ikasys proiektua ezartzea abantaila bezala hartzen dut, aurrerapenei ez baitiet inolako eragozpenik jarritzen. Hala ere, oraindik esperientzia bat besterik ez da.

Gorka Matute - Ikastolako informatikaria



Txikitatik eduki al duzu informatikari izateko nahi hori?

Hain txikitatik ere ez, gure txikitako garaian ordenagailuak ez zeuden nonahi, beraz ez zen hain ohikoa informatikaren aldeko zaletasuna. Halere unibertsitatean informatika ikasketak egitea erabaki nuenetik zaletasun hori piztu eta egunetik egunera gehiago gustatzen zait. Zerbait berria ikasten da uneoro eta hori oso aberasgarria da.

Ordenagailua zenuen unetik jarri al zenuen baita ere Internet?

Ez, noski. Internetek arrakasta handia izan zuen orain dela 10-12 bat urte eta etxeetan pixkanaka txertatzen joan zen, gaur egun dugun egoerara iritsiz, hau da, ia etxe gehienetan ordenagailua eta Internet dugularik. Halere hasiera batean azpiegiturak ez zeuden hain ongi presatutak eta nire kasuan lehenbizi ordenagailua eduki nuen eta ondoren Internet erabiltzen hasi nintzen.

Zein abantaila eta zein desabantaila ikusten dizkiozu Interneti? Orokorrean ze iritzi duzu honi buruz?

Internet gaur egun nire kasuan behar-beharrezkoa iruditzen zait.

Eguteroko lanerako eta bizitzarako asko erabiltzen dut: komunikatzeko tresna boteretsua da, modu errazean harremanak sortzeko aukera ematen du. Gainera informazio iturri bikaina da: munduko datu-base handiena kontsideratzen da. Hau da, Interneten aurkitu ezin dezakezun existentzen ez dela esan daiteke. Desabantailak, ba agian gertuko harremanak pixka bat galdu direla eta iruzur egiten saiatzen den jende asko dagoela. Halere orokorrean abantaila gehiago ikusten dizkiot desabantailak baino.

Interneten kontuz ibili behar dela uste al

duzu? Zerbait erosi al duzu honen bidez?

Bai, kontuz ibili behar da. Ongi begiratu behar da zein orrialdetan gabiltzan eta zeinen mezuak jasotzen ditugun, fidagarriak direla egiaztatuz, alegia. Erosi, bai, gauza dezente erosi ditut Internetez eta ez dut inongo arazorik eduki: hegaldiak, hoteletan egonaldiak, teknologia aparailuak, CD-DVDak, telefono mugikorrak, e.a. Azkenaldian honetan gehiago animatu naiz horrelako erosketak egitera. Hainbat dendaetan begiratu, informazioa jaso eta egokiena aukeratzeko bidea ematen du Internetek, eta hori dena zure eserlekutik mugitu gabe.


Zer iruditzen zaizu Ikasys proiektua? Aurrera aterako dela uste al duzu?

Ikasys, proiektu berritzaile bat da. Ikastolan Elkartean IKT (informazioaren eta komunikazioaren teknologia) talde indartsu bat dago eta horrelako proiektuetan lan polita egiten da. Ikasys-ek ikasleek modu indibidualean eta erritmo desberdinetan lan egiteko aukera ematen du, eta azken finean hori egutero gertatzen da, beraz, horrelako tresnak oso erabilgarriak direla iruditzen zait. Gure Ikastolan hurrengo ikasturtean hasiko gara Ikasys-ekin Lehen Hezkuntzako hainbat gelatan, ondoren maila eta gela guztietara zabaltzeko intenzioarekin.

Ze funtzio dituzu Ikastolako informatikari gisa?

Denetarik egitea suertatzen zait, klaseak emateaz gain, Ikastolaren webgunean hainbat edukit sartzea, ordenagailuekin dau den arazoak konpondu edo bideketak egitera. Hainbat dendetan begiratu, informazioa jaso eta egokiena aukeratzeko bidea ematen du Internetek, eta hori dena zure eserlekutik mugitu gabe.

ESPAÑIAko erreportari teknologia berriek jasandako bilakaera



XI. Erreportari Gaztea saria epaitzeko Andoingo Udalak izendaturiko Epaimahaia -mahaikide, Jone Larrañaga, Ainhoa Oiarzabal eta Jon Ander Ubeda kazetariak, eta idazkari, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak, alegia- ondorengo erabakia hartu eta ezagutzera ematea adostu du:

1. XI. Erreportari Gaztea Sariaren oinarrietan jasotzen den moduan, erreportajeen egokitasuna, osotasuna eta orijinaltasuna hartu dira kontuan lanak ebaluatzerakoan.

2. Guztira, 40 lan aurkeztu dira Erreportari Gaztea Saria, iaz baino 9 gehiago. Kopuruz lanak igo badira ere, ezingo dugu gauza bera esan kalitateaz. Oro har, aurtengo lanen artean badira bospasei besteak baino kalitate handiagoak. Gaitortzearen artean, berriz, maila oso apala duenik bada.

3. Parte-hartzaile gehienak 16 urte inguruko andoaindarrak edo andoainen ikasten dutenak dira. Lanak, berriz, gai anitzekoak: bikote hausturak, ekinoterapia, Sapa enpresa, saturazio teknologia, Rallyen sekretuak, ezpata dantza, anorexia, Urki dantzari taldea e.a.

4. Honako hauxe da sariari buruz Epaimahaia aho batez harturiko erabakia:

4.1 Hirugarren saria, 90 euroz eta diplomaz hornitua:

Zailtasunez betetako ibilbide bati ekin dio lan honek: euskarari buruz hitz egiten digu topikoetan erortzeko arriskua hartuz eta Andoaingoa ez den errealitate batean murgilarazten gaitu. Ekimenak berezkoak dituen ezaugarriak ez die, ordea, behar besteko zukurrik ateratu. Nolanahi ere, elkarrizketa zein kontaketa ongi harilkatzen dituen lan baten aurrean gaude, ongi egindako lan baten aurrean. Horregatik, epaimahaia erabaki du hirugarren saria ematea honako erreportaje honi:

- Saridunak: Irati Karrera eta Itziar Gutierrez.
- Saritutako lana: "Euskararen maratola 7. Korritzeko modukoal" izeneko erreportajea.

4.2 Bigarren saria, 180 euroz eta diplomaz hornitua:

Kasu honetan erreportajeak pertsona baten erretratua ekartzen digu. Izan propioa duen lana dugu, beraz. Istoria polita eraiki du autoreak eta bikain egin du informazio lokaletik orokorrerako jauzia. Estilo zuzenez, anekdotak oso ongi kontatu ditu, nahiz eta hizkuntza-zuzentasan aldetik zer hobetua baduen lanak. Irudien aldetik, oso ongi ilus-

trazten dira kontatzen diren iraganeko garaiek. Bereziki azpimarragarria da elkarrizketa, ez baitira bertan ohiko galderak egiten eta kontakizunaren hariari ongi lotuta doa. Jakin-mina eragiten duen lana dugu, interesa pizten duena.

- Sariduna: Unai Laskibar.
- Saritutako lana: "Euskaldunatik, historiara" izeneko erreportajea.

4.3 Lehendabiziko saria, 360 euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultoreak eginiko orogarriz hornitua:

Epaimahaia iritzi, inolako zalantzarik gabe hauxe da lan onea. Gaia lantzeko aukeraturiko baliabideak aipatu behar dira: grafismoa bera, infografia. Ongi aurkeztutako lana dugu diseinu aldetik, informazio osagarria eskaintzen duena. Azpimarragarria, ordea, lanaren ikuspuntua da: Autoreek bikain asmatu dute gazteen begietatik, eta helduekiko kontrapuntua eskainiz, teknologia berriak bezalako gai zabala erakargarri egiten. Hala ere, euskara jasoa egiteko borondatea dago lanean nahiz eta batzutan artifiziala gertatu. Bestetik, erreportajearen sarrerak ezin hobeto kokatzen du gaia hasieratik. Erregistroz ere aberatsa da, editorializazio-lana ere jasotzen da bertan, egoki jaso ere.

- Saridunak: Mikel Urdangarin eta Julen Arribillaga.
- Saritutako lana: "Teknologia berriak gazteen ezinbesteko tresneriak".

5. Ohikoa ez bada ere, epaimahaia aipamen berezi bat egin nahi luke bukatzeko, "Kirolaren aurpegia eta gurutzeta" izeneko erreportajeen Silvia Jándula, Amaia Santamariak eta Irene Cárdbak kirola utzi behar izaten dutenean kirolariet dituzten erroka berriak aztertzen dituzte. Lan honetan, ziur aski, Jon Tecedor halterofiliako kirolari olinpiarrari egin zaion azken elkarrizketa ematen da. Dakizuen bezala, Jon duela gutxi hil zen istripuz. Lan honen lekukotza, beraz, azpimarratzeko modukoa iruditu zait Epaimahaia.

6. Sari hau arautzen duten oinarrietako bosgarrenean aurreikusitako argitalpenari dagokionez, saritutako lehen hiru erreportajeak argitaratzeko gomendioa egiten dio Epaimahaia Andoingo Udalarari.

Honaino, bada, XI. Erreportari Gaztea Sariari dagokion erabakia, epaimahaikide guztiok onartzen ematen eta sinatzen duguna gaur, Andoainen, bi mila eta zortziko abenduaren 11n.

Jon Ander Ubeda, Ainhoa Oiarzabal, Jone Larrañaga eta Nekane Goikoetxea

Euskaldunatik, historiara

Jose Ramon Esnaolak Andoain futbol taldean hasi zuen bere bizitza profesionala eta Errege kopa irabazten bukatu zuen.



Jose Ramon Esnaola Larburu Andoainean jaio zen 1946ko ekainaren 30ean. Bere gurasoak Jose Esnaola eta Maria Larburu dira eta Bazkardoko auzoan bizi ziren. Bere bost anai-arrebetatik bera erdiakoa da.

GAZTAROA

Donostiako hondartzan hasi zen futboleko atezain bezala jolasten, nahiz eta bere gurasoei ez zitzaien gustatzen bere semea futboleko jolasten ibiltzea. Jose Ramonek bere gurasoie futboleko jolatu nahi zuela esan zienean, bere amak erantzun zion lehengo gauza, galtzak ez puskatzeko izan zen, bera egunero agertzen bait zen galtzetan zuloren batekin eskolako zeiaiak harrizkoak bait ziren. Hori bai, jolasten zuen partidu bakoitzeko, kandela bat pizten zuen bere amak ezer gerta ez zitzaion. Zortzi-hamar urte zituenean eta bakarrik egoten zenean, berak baloia paretaren kontra jaurti eta bueltan etortzen zenean gelditu egiten zuen atezainek bezala. Handik set urtetara lanean hasi zen "Plasencia de Annas" lantegian. Bertan kotxeentzako karterak egiten zituen. Baina bera ajustadorea zen eta taladroa eta limarekin egoten zen. Lantegi horretan hogeitau urte zituen arte egon zen. Baina nahiz eta lanean egon bera beti herriko futbol taldean, Euskaldunan, egon zen.

TXURI-URDIN BIHURTUA

Egun batean, Jose Ramon hemeretzi urte zituela, lantegira joan zen egunero bezala, eta lanean zegoela, bere osaba agertu zen lantegian, Donostiara joan behar zutela esanez eta lana bertan behera uzteko, bera Errealeko jokalaria izango zeia eta joan egin behar zutela. Jose Ramonek ez zuen sinesten eta lantegiko zuzendaria-rena na joan zen ea ateratzen uzten zion galdetuz eta baiezkotza jaso zuen erantzun moduan.

1965 zen eta egun horretan Errealarengatik fitxatua izan zen, Euskalduna hirugarren mailan zegoenean. Momentu horretan Erreala bigarren mailan zegoen, baina hala ere aurrerako pauso handia izan zen berarentzat. Urte horretan bertan jolatu zuen here lehen partidua Errealarekin. Bere lehen urteak aulkian igaro zituen, baina lehen mailan zeudenean, Jesus Man Zubiarrain Errealeko lehen atezaina Atletico Madrilek fitxatu zuen. Orduan Esnaola lehen atezain izatera pasa zen 1968an. Bost denboraldi jolastera iritsi zen, non 207 partidu ofizial jolatu zituen.

KOLORE BEREZIA DUEN HIRIAN, ZURIBERDEA

1973. urtean Jose Ramon Esnaola, "Real Betis Balompie" futbol taldera transferitua izan zen 12.000.000 pezetarengatik. Talde hanetan 303 partidu ofizial jolatu zituen eta Betiseko kamiseta minutu gehien jantzi duena izan da 27.102 minuturekin. Talde honekin ere bere eta taldearen momenturik historikoena bizitu izan zuen, talde zuriberdearekin Errege kopa irabazi zuenean. Atezain bezala bertan eman zituen bere azken pausoak nahiz eta ondoren ere talde horretan jarraitu zuen gaur egunerarte. Atezain izateaz bukatu zuenetik, 1990 eta 1992 urteen artean lehen mailako taldea agindu zuen, eta bestela atezainen entrenatzaile bezala ibili zen gaur eguneko bezala, eta Betisen bigarren taldeko entrenatzaile bezala ere.



MOMENTU HISTORIKOA

Uztailaren 25a zen 1977. urtean. Esnaola Betis futbol taldean zegoen eta talde zuriberdea Erregearen kopako finalera iristea lortu zuen, Athletikek bezala, Finala Madrileko hirian zegoen Vicente Calderon futbol zeiaian jolatu zen. Afizio erdia zurigorria zen, hots, Athletic taldearena, eta beste erdia zuriberdea. bere taldearena. Partidua 2-2 bukatu zen Lopez zuriberdearen bi golekin. Azkenean penaltietara iritsi ziren, Esnaolaren momenturik historikoena: zazpina penalti jaurti ondoren, atezain bakoitzak bina penalti gelditu zituzten. Esnaolak Dani eta Villar jokalarienak, orduan partidua berdindua jarraitzen zuen eta bere taldeko Benitez zapatitak kenduak aldegeletara joan zenez penaltia bota nahi ez zuelako, berak bota behar izan zuen. Bere bizitza guztian ez zuen 11 metrotako jaurtiketa egin eta oso urduri zegoen aurrean zuen atezainarengatik, Iribar, eta asko jokatzen zuelako, Errege kopako finala hain zuzen ere.

Berak bazekien nora botako zuen, Iribarren ezkeraldera eta erdi alturara, eta horrela egin zuen, baloia pantsatua zuen lekutik sartu zen eta Iribar beste aldera bota zenez, baloia inongo arazorik gabe pasa zuen gol marra. Momentu horretan porteri aldera hurbildu zen eta Iribarrekin gurutzatu zenean:

"Barkatu, sentitzen dut" esan zion. Hala ere aurkako penaltia zuten oraindik eta beste taldeko atezainak botako zuen, talde zuriberdean bezala. Iribar baloia jaurtitzera zihoan eta Esnaolak intentzioa asmatu eta Betis taldeari finala emango zion geldiketa egin zuen. Izugarriko emozioa zuten jokalaririk zuriberde guztiak 1935. urtetik ez zutelako inolako titulurik irabazi.

Jose Ramon Esnaolak 61 urte ditu eta Betisen historiak jokalaririk bat izateaz gain, lahen taldeko atezainen entrenatzaile da gaur egun. Txikitari hasi zen atezain bezala eta hasiera batean ez zuen uste profesional izatera iritsiko zenik herriko futbol taldean jolasten zuelako. eta lanean hasi zen 16 urterekin. Lanean zegoela bihurtu zen profesional.

Jose Ramon Esnaolari elkarrizketa

Beraz, "manitas" bat izango zara? Bai, bai, asko gus-tatzen zait etxeko arazoak konpon-tzea: elektrizitatea, iturgintza... Dene-tatik gustatzen zait.

Ez al zenuen ikasi? Ez, lanean hasi nint-zenean utzi nituen ikasketak. Aita lan-gilea eta bost anai ginenez lagundu egin behar genuen.

Zergatik Betis? Begira, ezkondu nintzenez nere emaztea eta ni Malagara joan gin-en bidaiean eta bertara iritsi orduko emazteari esan nion gauza bakarra bero honekin ez nintzela Andali-zara bueltatuko futbolarengatik ez bazen eta handik urte batzue-tara hona etorri gin.

Kasualidadea. Bai, inoiz ez dakizu zer gertatuko den.

Lehen jokalaririk eta orain entrenatzaile, beti egon al zara lanean? Beti ez, denbora batean atezainen entrenatzaile izateaz utzi nuen.

Eta zer egin zenuen denbora horretan? Familiarekin egon. Orain aitona bihurtu naiz eta ikusten duzu lanak familiarekin egoteko denbora asko kendu dizula.

Orain ezin da denboran atzera joan.



Ahal izango balitz ere ez nuen egingo.

Aldizkarietako eta egunkarietako zatiak begiratu ahal ditzazkezu edo emozionatu egiten zara? Ez, lehengo urtean egon nintzen begiratzen eta lau album izugarri egin nituen.

Futbol kide bat. Ezinezkoa da bat esatea, asko dau-de.

Atezain historiko bat. Iribar, nahiz eta fmalean gola sar-tu.

Eta gaur egun. Casillas eta Victor Valdes.

Zer egingo zenuke atezain izango ez bazina. Pelotari izango nintzen, oso ondo ematen zitzaidan.

Zein izan da esan dizuten goraipe handiena. Betiseko historian atezainik hobere-na izan naizela eta pertsona ona ere. Sevillakoek ere esan didate.

Zein izan da zure bizitzan momenturik hobere-na. Dudarik yabe, finala irabazi ondo-rengo festa, Sevilla guztia kalean zegoela zirudien, Betis eta Sevilla-koak.

Espero dut ondo jarraitzea. Berdin eta eskerri-kasko.




Aipamen Berezia: "Kirolaren aurpegi eta gurutzeta"

SILVIA JÁNDULA, AMAIA SANTAMARIAK ETA IRENE CÁRDABA

Kirol jarduna amaitu ondoren, bizitzan aurrera egiteko kirolari ohiek duten erronka berria aztertzen da erreportaian. Lan honetan, ziur aski, Jon Tecedor halterofiliako kirolari olinpiarrari egin

zaion azken elkarrizketa ageri da. Jakina den bezala, Tecedor duela gutxi hil zen istripuz. Lan honen lekukotza, beraz, azpimarratzeko modukoa iruditu zaio Epaimahaiari.



[ELKARRIZKETAREN LABURPENA]

Jon Tecedor, Sydneyko 2000 urteko Olinpiar Jokoetan hamalagarren postuan sailkatu zen.

Nola hasi zinen kirol honetan? Ez duzu aukeratzen, gogoko dituzun gauzak egiten ikasten duzu. Nik halterofilia egiten zuen lehengusu bat nuen

eta proba egin nuen. Atletismo, boleia... probatu nituen aurretik.

Joko Olinpikoen baino lehen, beste kompetizio batzuetan parte hartu al zenuen? 1994an Madrilerara joan nintzen entrenatzera. Joakin Blum-en erresidentzian, oraindik juniorra nintzenla. European eta "Junior" mundialeko jokatu nuen, hortik aurrera 1995ean Atlantako aurreolimpikoan, europarran... 2000 urtera arte.

Beraz Olinpiaden ondoren erretiratu zinen? Erretiratu nintzen Joko Olinpikoen ondoren, bai. Lehia-tzen segitzen dut baina "lehia altua" oso zorrotza da.

Ze pauso eman zenituen Olinpiadara iritsi baino lehen? Madrilerara entrenatzera joan nintzen. Taldeko klasifikazioa urte bete lehenago izaten da. Kirola banakoa izan harren, klasifikazioa taldeko izaten da. Ekipo guztia joan zen mundialera lehengo urtean eta taldeko klasifikatu ginen, baina ni nere kategorian hamabost hoberenetakoen artean nintzen eta hurrengo europarran bakar-kakoetan klasifikatu nintzen.

Ze sentazio eramaten dituzu Joko Olinpikoetaz? Oso ona, hobere-na. Berezia da, uste dut beste kirolariek ere esan dezaketela. Kirol desberdinen kirolari guzti-ekin leku berean eta guzti-ekin ikusten zara. Munduko lehia-keta batekoa desberdina da. Errepikatze-ko modukoa da.


Zergatik utzi zenuen? 25 urterekin utzi nuen, beste lau urte segiko banu, 30 urterekin, eta lan munduan esperientziarik gabe, gauza arraroa da. Erabaki nuen nire kirol bizitza bukatu egin zela eta lana bilatzen hasi nintzen.

Eta erraz aurkitu al zenuen lana? Egia esateko zorzea eduki nuen. Aldaketa handia da, zeren eta goran egoteak eta gero lana langile xume moduan egotea ez da erraza.

Uste duzu zure bizitza desberdina izango zeia kirolari ez bazinan izan? Bai, nire bizitza desberdina izango zen, baino onerako baldintzatu nau. Inoiz ez dakizu, nire ustez nire burua antolatze-ko lagundu dit.

Euskararen maratoia 7

Kortizeko indubial!



ZER HELBURU DITU?

Maratoiaren ardatza euskara da eta bere baliorik kuttunenetakoa, berriz, herriko euskaltzaleak, beren tirabira ideologikoen gaintetik, jaiaren inguruan biltzea.

Beti izan da Maratoiaren helburua ahalik eta herritar gehienek parte hartzea eta, horretarako, aparteko partehartzea dute herriko elkarteek. Izan ere elkarte gastronomikoak (jan-edanak prestatuz), kirol-arlokoak (kirol probak prestatuz), musika eta kantuari lotutakoak (abesbatzak, musika-eskolak...), auzo-elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak... guztiak parte hartzen dute festa honetan.

Borobilduz, maratoia, euskara bultzatzeko motibazio kanpainak da.

NOLA HASI ZEN?

Euskararen Maratoia, 1986an hasi zen eta apustu bat bezala aurkeztu zen. Antolatzaileen nahia beste herriren batek erronkari heltzea zen, baina inguruko herriek ez zioten 40 orduz euskaraz hitz egitearen erronkari erantzun. Honen ondorioz, Maratoia urri inguruan ospatzen den, herriko festa bat bihurtu zen.

Hasierako Maratoiak xumeagoak baziren ere, bilakaera erraldoia izan da eta gaur egun Lasarteko herritar guztien parte hartzea duen ospakizunean bihurtu da.

Hala ere, Maratoi bakoitzean iturri zaharretatik ur berria eskaintzen saiatzen dira antolatzaileak.

ZERTAN DATZA MARATOIAK?

Maratoi guztietan, zortzi pertsonen osatutako talde bat izaten da, Zortzikotea deiturikoa. Hauen zeregina, festa guztian zehar herriko plaza alaitzea eta dinamizatzea da. Zortzikote honek ezaugarri berezi batzuk izan behar ditu, edonork ezin dezake zortzikotea osatu. Esaterako, Zortzikotean emakume eta gizon kopuru berdina izaten ahalegintzen dira. Bestalde, kideen artean adin-tarte zabala egon ohi da. Hauek euskara menderatu behar dute, hitz-jarioa edukiki... Honetaz gain, Zortzikotean euskaldun berriaren figura azaltzen da beti eta taldean beti aurreko maratoietan parte hartu ez duten kideren bat edo gehiago egoten da.

Zortzikoteaz gain, maratoian parte hartzaile gehiago egoten dira, hauek Lasarten jaio, bizi, edo lan egiten duten pertsonak direlarik. Maratoiaren parte hartzea borondatezkoa da ez baitu inork etekin ekonomikorik ateratzen.

Festa honetan haurrek protagonismo handia izaten dute, beraiek prestatutako ikuskizun asko izaten

Euskararen Maratoia lasarteoriatar askok euskaldun izateko duten nahia sinbolizatzen duen jai bat da. 1986an hasi zen, erronka edo apustu modura, Lasarten 40 orduz euskaraz bizi zitekeela frogatu nahian. 1988tik aurrera lau urtez behin ospatzen da Maratoia. 40 ordu, etenik gabe, irauten duen jai hau, egunero maratoia, benetakoa, elikatzen laguntzen duen jai da.

direlako eta baita beraiei zuzenduriko ekitaldi asko ere, hala nola, pailazoak, herri kirolak, antzerkiak, tailerrak...

Euskararen Maratoia larunbatean goizeko 08:00etan hasten da eta igandean gaueko 24:00etan amaitu. Ordu horietan, hainbat ekitaldi izaten dira herriko enparantzan. Maratoia, txistulariekin egindako desfile batek, udaletxetik lekukoa deitzen dioten eskultura ateratzen dutenean egiten den inaugurazioarekin hasten da.

Umorea ardatz duten ekitaldiak izaten dira maratoian, zortzikoteak zein herritarrek prestatuta dituzten eman-kizunei bide emanez. Era askotakoak izan daitezke hauek, ikastetxetako haurren emanaldiak, musika eskolakoak, trikitilariak, herriko pertsonaileak, kontzertuak...

40 orduko tarte honetan, mikrofono bat egoten da eta honek bost minutu baino gehiago ezin du isilik egon. Horretarako bai zortzikoteak baita beste parte hartzaileek ere, hainbat emanaldi egiten dituzte, beti ere euskaraz.

Hala ere, oholta gainean ikusten diren agerraldiez gain, atzean izugarriko lana egiten duen jende asko dago, hala nola, elkarte gastronomikoak, Takun elkarteak, Udala... eta batez ere herriko jendea. Izan ere, Euskararen Maratoia, funtsean, Lasarte-Oriako herritarrek dira.

Maratoi bakoitzak abesti bat izaten du ereserkitzat, bat baino gehiago sortzen badira ere. Hala ere, aurrez ospatutako maratoietako abestiak erabiltzen dituzte.

Maratoia ospatzeak hainbat zailtasun ditu, 40 ordu, ordu asko baitira. Bi egun hauetan, badira ordu gogorak, izan ere, badira herriko plaza jendez beteta egotea zaila diren uneak. Momentu hauetan, zortzikoteak heltsen dio lanari, ekitaldi ikusgarri eta erakargarri antolatuz.

Ospakizun honetan zehar, bizitza eta festa herriko plazan egiten denez, eta herritar guztiak parte hartzen dutenez, otorduak ere herrikoak izaten dira. Hasierako Maratoietan, otordu bakar bat izaten zen herrikoia baina gaur egun, otordu guztiak plazan ospatzen dira, bertan jende asko biltzen delarik.

Bestalde, Maratoi guztietan Santa Barbaridada deitzen dioten ibilaldia egiten dute. Hau, txanda desberdinetan hainbat taldek herrian zehar egiten dituzten itzulien multzoa da. Txanda hauek Maratoia bera bezala ez dira inoiz gelditzen, ezta gauez ere.

Gaueko buelta goizeko lau eta erdiak inguruan hasi ohi da, eta Santa Barbara mendian gau pasa egiten da trikitilariekin batera. Han gosaldutik ondoren, berriz ere herrira itzultzen dira zortziak aldera.

Gaueko txandak irauten duen bitartean horretan bakarrik, hartzen dute atseden Zortzikoteko kideek. Gosari herrikoian ondoren berriz ere festari ekiten diotelarik.

Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' pailazoari elkarrizketa

Joxe Mari Agirretxe, Porrotx pailazoa bezala ezagunagoa, beteroa da Euskararen Maratoian. Izan ere, ospatu diren Maratoi guztietan parte hartu du eta aurten ere Zortzikoteko kidea da. Horrenbestez lasarteoriatar honek, Maratoietako xehetasun eta sekretu guztiak ongi ezagutzen ditu. Ondorioz pertsona egokienetakoa da festa honen inguruko hainbat galdera lutzatzeko.

Nola eta zergatik sortu zen Maratoia?

Agustin Mujikak (Takolok) izan zuen ideia batean oinarritua dago Maratoia. Marrazki bat egin zuen bertan, oholta bat, mikrofono bat eta zortzi pertsona marraztu zituen. Berrogei orduz mikrofono horren aurrean euskaraz hitz egin behar zuten etenik gabe. Oholtzaren gaintetik ahalik eta lasarteoriatar gehien pasa behar zuten. Lasarteoriatar hauek sektore desberdinetakoak ziren ideologiari, adinari, sexuari, kulturari, erlijioari... zegokionez. Honela, mila lasarteoriatar baino gehiago pasa ziren oholta gaintetik. Lehenengo edizioaren helburua euskara kalera ateratzea zen. Era berean, Lasarten euskaraz bizi zitekeela egiaztatzea eta horretara animatzea festa handi baten bidez.



Zer iruditzen zaizu Maratoiak bizi izan duen bilakaera?

Hasiera batean, bertan lanean aritu ginenen buruan bazegoen ideia bat Maratoia eta gero jendea euskaraz hitz egiten hasiko zela. "Bihartik aurrera euskaraz..." eta horrelakoak esaten genituen oholta gaintetik. Poliki poliki konturatu gara ez dela hala izan eta Maratoia festa handi batean gelditu da. Euskararekiko maitasun pixka bat dugunontzat sekulakoa da eta azkeneko 22 urteetan Maratoia lasarteoriatarren bihotzetan geratu da. Maratoia oso garrantzitsua da guretzat, San Pedroko baino gehiago esatera ausartuko nintzateke. Baina festa handia izanagatik ere, gero egunerokotasunean ez du hasieran nahi genuen adina eragin izan. Izan ere, egunerokotasuna lortzeko egunero egin behar da lana. Bestalde, hasieran arauekin oso zorrotzak ginen, zortzikoteak ezin zuten oholtzatik inola ere jaitsi, ezta lo egiteko ere. Azkenaldian pixka bat lasaitu gara arlo horretan.

Zu, Zortzikoteko kide izan zara beti, ez al zara nekatzen?

Ni berez, nahiko saltseroa naiz, pailazoa ogibidez. Maratoiko zortzikotetatik pasa diren guztiak berdina esango dutela iruditzen zait, festa hori oso erakargarria dela, alegia. Lan asko eskatu harren satisfazio handia ematen du gero. Zortzikotean parte hartzea eskatu didaten guztietan baiezkoa eman dut, baina horrek Fidel Castro bezala sentiarazten nau. Maratoiak sortzen duen zirrara sentitzen dudun bitartean, eta oraindik sentitzen dut baiezkoa ematen jarraituko dut.

Borobilduz, Maratoiaren oinarria euskararen berreskurapena eta honen normalizazioa dira. Berreskurapen horren oinarria, euskaldun izateko nahia da eta nahi hori euskaldunen artean ez ezik, euskara ezagutzen ez duten baina euskaldun izan nahi duten edota Lasarte gero eta euskaldunago izan dadin nahi duten herritar askoren nahia da. Izaeraz eta intentsitatez desberdinak diren nahiak, baina guztiak dute tokia Maratoian eta guztiak elkarren eraginean jartzeko ere balio nahi du Maratoiak.

Guztiok dakigu euskararen normalizazioak lau urtez behin egin daitezkeen ekitaldi batek eman dezakeena baino jardun sendoagoa eta iraunkorragoa behar duela. Hala ere, guztiok ere badakigu gizar-teak horrelako lagungarriak behar izaten dituela egunerokotasunean jarraitu ahal izateko.

Berrikuntza moduan eta Maratoiak bizi duen bilakaeraren adierazle, aurten, lehen aldiz, web orri bat sortu dute: www.euskararenmaratoia.com

Bukatzeko aurten, VII. Maratoia ospatuko dute lasarteoriatarrek. Urriaren 18-19an ospatuko dute baina pasa den apiril-tik lanean dihardute guztia ondo atera dadin.



Maratoiaren hasierako helburua, beste herriek Lasartek bota zuen apustuari erantzutea zen, zergatik uste duzu ez ziotela erronkari heldu?

Asko kostatzen delako antolatzea, zaila da. Erronka gogorra da Maratoia antolatzea eta jende askoren inplikazioa behar izaten da. Bestalde Lasarten badago euskararen normalizazioarekiko gabezia bat, eta horrek euskaltzale sentitzen garenei hausnarketak bat egitera bultzatzen gaitu. Agian, Lasarten euskaraz bizi duen egoera konpontzeko merezi du euskaltzaleak biltzea nahiz eta pentsaera edo ideologia desberdinak izan. Euskaltzaleen batze hori ezin da gauzatu beste herrietan euskararen egoera desberdina delako.

Zer suposatzen du Maratoiak Lasarte bezalako herri batentzat? Eta lasarteoriatar batek nola bizitzen du?

Lasarte-Oriak badu itxura bat herritik kanpo eta baita barnean ere herri erdalunarena. Agian Maratoiak horretan lagundu ahal izan digu, herri bezala konturatzen gauza pila bat euskaraz egiteko gai garela. Azken finean, Maratoia egunerokotasunean herrian egiten diren gauzen ispilu da.

Lasarteoriatarren artean inplikazio maila desberdinak dauka. Oro har, askok eta askok puri-purian bizi dute, Maratoia sus-traitutako festa delako.

Maratoiak duen helburua betetzea lortzen al da?

22 urte pasa eta gero, Maratoiaren hasierako anekdotak gogoratuz barre egiten dugu. Hasieran guretzat Maratoia gauza oso oso garrantzitsua zen. Lehen esan bezala hurrengo egunetik aurrera Lasarten jende gehiago euskaraz hitz egingo zuela pentsatzen baikenuen. Orain helburuak aldatu egin dira, gaur egun Maratoia lasarteoriatarrek euskararen inguruan biltzen dituen festa handi bat bilakatu da. Azken finean nik uste dut, Maratoiak egunerokotasuna baldintzatu beharrean egunerokotasunak baldintzatzen duela Maratoia, hau da, Maratoi aberatsak batek ez du egunerokotasuna askoz ere aberatsagoa izatea ekarriko baina egunerokotasun aberats batek Maratoia aberatsagoa suposatuko du. Maratoiari gehiago eskatzeak frustrazioa besterik ez digu ekarriko.